T-ARTEA

ERRENDIMENDU HANDIKO ZENTRUA



__gaur egungo egoera







Artziniega, Arabako ipar-mendebaldeko udalerri bat da. Aiaraldea kuadrillan barne. Gazteiztik 55 km-tara eta Bilbotik 22 km-tara zehazki. Herribildua, muino baten gainean kokatzen da eta urteetan zehar mendebaldera zabaldu da, gaur egun 1844 biztanle ditu. Herriak, 3 probintzien mugakidea da, hala nola, Araba, Bizkaia eta Burgos. Udaletxe berdinaren barnean beste 8 herri sartuta daude. guztira 27,45km2 okupatzen dute.

Iraganetik presentzia eta memoria duten arrastoak lan eremua izanik, egungo eraikin zaharkituek utzitako tokiari beste aukera berri bat ematea da helburua. Behar berriak txertatze lanaz gain, azpiegitura dinamiko baten beharra du programa berriak. Zatikatuta zeuden tarteko espazioen definizio berriak eta publiko/pribatuaren arteko harremanaren ber-programazioa guztiz oinarrizkoa bihurtu da barneko espazioak kontaktu zuzenean jartzeko, hiri txiki bat balitz bezala funtzionatuz.

Proposatutako gunea, MARISTA FRAIDE ANAIEN eraikina da. 6000m2-ko partzela batean, magalaren kontra. Garai ezberdinetan eraikitako eraikinez osatua, bere baitan eskuinetik ezkerrera: kapera txiki bat [226m2], Marista fraideen egoitza [480m2 2 solairutan banatuta], Barrokoko eraikin "babestua" [1000m2 3 solairutan banatuta] eta azkenik eraikin funtzioanitza (logelak, auditorioa, jangelak, sukaldea....) bitan bananduta[968m2 4 solairutan eta 875m2 3 solairutan hurrenez hurren]. Kanpoaldeari dagokionez eta kirolan zentratuz: Saskibaloi zelaia, futbol zelaia eta frontoia dugu., azken hau 779m2-koa.

Babes mailari dagokonez, Barrokoko eraikina dugu babestu bakarra. Babes basikoa deritzona udalak, hau da, fatxadaren konposizioa eta materialtasuna. Gainontzeko eraikin guztiak, garai berrikoak dira eta ez dute inolako garrantzi arkitektonikorik

Gaur egun, hutsik dirau. Marista Fraideek hitzarmen bat sinatu zuten duela 52 urte Garai familiarekin, apaiztegi bat irekitzeko nahiarekin eta 50 urteko iraupenarekin.

1790. urtean eraikitako baserria pixkanaka garrantzia galtzen hasi zen, alboko eraikinen txertaketaren ondorioz. Barneko distribuzio originala ere aldatu egin da, pareta nagusietan zulo berriak irekitzen, leihoak eta ateak... Barnetik eraikin multzoa, bat balitz bezala ulertu zedin. Argi dago, kanpoaldeko ikuspegia ez zutela bat ere zaindu begibistakoak bait dira eraikin horien geroagoko itsastea.

Udaletxeak, Garai familiari zenbait kasutan eskatu omen dio konpleju honen lagapena, eraikin publiko gisa herritarrentzat. Baina argi dago bertan behera geratu dela proposamena.
Garai familiak 2 urtez itxita daraman eraikin multzo honi buruz interes handia erakutsi du azken aldi honetan. Euren esanetan eta intentzioetan, eraiki berri diren eraikin guztien eraispena azaldu da besteak beste [1965-1970. urteen artekoak], balioa duen bakarra mantenduz.
Azken eguneko proposamena, eskuineko eraikina udaletxeari lagatzean datza, eraikin publikoa bihurtzeko nahian, partzela berria sortuz etab... Gainontzekoa eurentzako izango zen.

__planoak eta ebaketa e_1/500











T-ARTEA
ERRENDIMENDU HANDIKO ZENTRUA

_analisiak

_herriko kirol espazioen analisia



_estatu mailako kirol zentruen analisia



C.A.R_ERRENDIMENDU HANDIKO ZENTROAK_EHZ

C.A.E.R_ERRENDIMENDU HANDIKO ZENTRO BEREZITUAK_EHZB

CSDaren EHZ__Madril

Txirrindulan berezitutako EHZB__Palma De Mallorca

SanCugatDelValles-ko EHZ__Bartzelona



Golf-ean berezitutako EHZB__Madril

CSDaren Altimetria altuko EHZ__Granada

Remo eta Piraguismoan berezitutako EHZB__Sevilla

CSDaren EHZ__Leon

Jaurtiketa olimpikoan berezitutako EHZB__ Granada

**ARTEA EHZ__Araba (Artziniega)

Belan berezitutako EHZB__Santander

LEHEN MAILAKO KIROLAK BURUTZEKO ZENTRUEN SAILKAPENA

(BOE 166, viernes 12 de julio de 2002) artikuluan, aktibitate deportiboak burutzeko 3 zentru ezberdin zehazten dira, Espaina mailan:

1. Errendimendu Handiko Zentruak (EHZ), euren konfigurazioa kalitate maximoko oinarri gisa planteatzen da bai arlo zientifiko teknikoari dagokionez baita maila handiko kirolei dagokienez. Guztiz beharrezkoak Espaniar Kirolak lehiakorrak izateko.

2. Kirolen Teknifikaziorako Zentrua (KTZ), autonomia mailan zentratzen dira. Kirolari baten gaitasunak hobetzeko nahiarekin betiere elitera bideratuta eta lurradeko garapen deportiboa hobetzeko asmoarekin sortu dira.

3. Errendimendu Handiko eta Kirolen Teknifikaziorako Zentru Berezituak (EHZB eta KTZB), aurreko bien osagarriak dira, baina kirol zehatz batean zentratzen dira, aurrekoetan ezinezkoa delako kirol horren ardura.

Euskal herria osoan eta inguruetan ez dugu EHZ (Errendimendu Handiko Zentrorik), ezta EHZBrik. Penintsula osoaren iparraldean kokatzen den zentru bakarra, gainera KTZB motatakoa, Santanderren dugu, Belan zentratzen dena. Gerturik dagoen EHZa Leongoa da, 350km-tara kokatua.

Artziniega eta konkretuki arteko gure amaren eremua, egokia bihurtzen da EHZ zentru bat eraikitzeko, hiri garrantzitsuenetik gertu eta aldi berean lasaitasun eremu batean, berdegunez inguratuta eta herriaren zentrutik aldenduta ere.

SAILKAPEN HORRETARAKO IRIZPIDEAK (EHZ)

1. Instalakuntza deportibo disziplina-anitzekoak eta estatu mailako interes deportibokoak

2. Lehen mailako ekipamendu deportiboak

3. Baliabide material eta gizaki baliabideak, izaera tekniko eta pedagoikoei dagokionez.

4. Logela zabaldun egoitza, isiltasun eta argiztapen naturalarekin. Gainera, kirol eta hezkuntza zentruetatik gertu, ikasteko eta elkarrekin bizitzeko eremuekin.

5. Kudeaketa nukleo bat, instalakuntzen funtzionamendua bermatzen duena.

6. Talde tekniko aditua

7. Zerbitzu mediko deportiboa, lesioak eta gaixotasunak antzemateko eta berregokitzeko.

8. Departamentu zientifikoak eta ikerketa guneak, entrenatzaile eta kirolarien helburuak lortzen laguntzeko

9. Hezkuntza zentrua, ahalik eta gertuen eukitzea.

ANALISIEN ONDORIOAK

Herriko kirol instalazioak aztertu eta gero, eskasiak urrunetik somatzen ziren, ez soilik kirol eremuen aniztasunean, baizik eta egoeran ere. Alboko bi herrien polikiroldegiekin harremanetan jarri nintzen, bat Amurriokoa (Araba) 10 minutura eta beste bat SODUPEKOA (Bizkaia) 12 minutura. Bietan, herriko jendea zuten bazkide bezala, urte osoan zehar.

Guztira, 300 pertsona inguru herritik ateratzen dira astean 3tan kirola egin ahal izateko. Esakakizun gehienak, igerilekuetara bideratzen dira, batez ere helduenen artean. Bitartean semeak, eremu berdinean beste aktibitate mota batean aritzen dira (karate, gimnasia erritmikoa, padel... eskatuenen artean.)

Estatu mailan, orokorrean, gabeziak iparrean somatzen dira, non EHZak nahiko urrun geratzen diren.

Eraikin berriaren barneko kiroel erabilerak, analisi hauetan oinarritzen dira, gabezi guztiak, bai herri bai estatu mailan konpondu ahal izateko. Gainera, ikuspuntu ezberdin bat planteatzen da eraikinaren barnean, polikiroldegi antzatik urrunduz.
Hiri bat balitz bezala funtzionatuko du, bere espazio publikoekin non pribatua eta publikoa ez diren bereizten. Kontra eraikinaren baitan diferentzia hori pixkanaka areagotuz joango da, ibilbide ezberdinak planteatuz bisitari eta bertan bizi direnen artean.









T-ARTEA
ERRENDIMENDU HANDIKO ZENTRUA

ESTRATEGIA





ERAIKINA ETA MENDI MAGALAREN ARTEKO ESPAZIOEN GARBIKETA



BALIO ARKITEKTONIKORIK GABEKO ERAIKINAK ERAITSI, ETA ETXE NAGUSIA HUSTU



ETXE NAGUSIA NUKLEOTZAT HARTUTA, KOMUNIKAZIO + ZERBITZU NAGUSIEN KUTXA TXERTATUKO DA, BI ERAIKINAK LOTUZ.
GERORA ETORRIKO DIREN KIROL EREMUEI ERE ZERBITZUA EMANGO DIE



AZTERKETAK EGIN ETA ONDOREN BEHARREZKOAK DIREN KIROL ESPAZIO BERRIAK KUTXA BETETZEN HASIKO DIRA



ARDATZ NAGUSIA ESPAZIO PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK BANATUKO DITU
ALDI BEREAN KOMUNIKAZIO KUTXA, ERABILERA BERRIAK TXERTATUKO DITU



PUBLIKOA / PRIBATUA BANATUTA DAGOELA, ARGIZTAPENERAKO ETA TRANTSIZIO ESPAZIOAK SORTUKO DIRA



KOMUNIKABIDE NUKLEOTIK AZAL BERRIA SORTUKO DA ERABILERA GUZTIAK BATERATUZ

_oin orokorra e_1/500



PPROGRAMA

ERRENDIMENDU HANDIKO ZENTRUA berri baten garapena da, estatu mailan, probintzia mailan eta herri mailan dauden gabeziak betetzeko.
Horretarako herri/hirietatik gertu baina aldi berean oso lasaia den kokapena aukeratu da, aktibitateak eta bertako bizitza behar den bezala egin ahal izateko.
Kirol espazioek duten programa zurrunari aurre egiteko, tarteko erlazio-espazioak sortu dira. Tamaina handiko azpiegitura izanik solairu ezberdinetan antolatuta dago, betiere ibilbideari eta bertan gertatzen diren erlazioei behar duten garrantzi emanez hauxe bera bait da da proiektatuaren ardatza, eta hau erlazio–eremu bihurtzen da… espazio publiko berri bat sortuz, sarrera, patioak eta korridoreei funtzionaltasuna erantsiz.

Errendimendu Handiko Zentru batek 4 multzo nagusietan banatzen da, espazio deportiboak, administratiboak, ikasketa gunea eta erresidentzia gunea, hiri txiki bat balitz bezala.
Espazio deportiboei dagokionez, derrigorrezkoa da ere, eraikin publikoa izanik, herriko jendeari zerbitzua ematea portzentai batean.
Estatu mailan, EHZ eskasia somatzen da, dagoeneko, probintzia bakoitzak izan beharko luke propioa, baina gaur egungo egia ez da hori. Herri maila batera hurbilduz, Artziniega den modukoa, espazio deportiboen aniztasuna eta ugaritasuna faltan botatzen dira. 2 eskala hauen bateratasuna, eraikin kirol-anitz bat eskatzen du, zeinan errendimendu handiko kirolariak eta herriko jendea bere bizitza eta kirol esparruan zer ikusia duen guztia partekatu ahal duten. Eremuen erabileretan kirolari profesionalak izango dute lehentasuna.
Proposamena mantendutako bi eraikinak hartzen ditu nukleo gisa, partzela berraktibatzeko. Udaletxearen partetik eta eraikinen jabeen aldetik negoziazioak egon dira eta daude, eraikina, publikoa bilakatzeko asmoarekin. Honi , herriko jendearen eskaerak, kirol eremu berrien eraikitzea eta eraikita daudenen berritze asmoaK gehitu behar zaizkio

_fatxadak e_1/500



_barne espazioen irudia



T-ARTEA

ERRENDIMENDU HANDIKO ZENTRUA

oina eta ebaketa nagusia e 1200





T-ARTEA
ERRENDIMENDU HANDIKO ZENTRUA

_eraikina solairuka



oina orokorrak e_1/300

T-ARTEA
ERRENDIMENDU HANDIKO ZENTRUA



E_1/30

1_ aluminiozko xaflak 5mm
2_errastrel metalikoak 50mm
3_xafla nerbatua 100mm
4_isolamendu termikoa 70mm
5_ pladurreko foc akabera 40mm
6_ kobrezko erretena
7_ erretena sostengatzeko kutxa isolatua
8_sub egitura metalikoa IPE motakoa
9_aluminiozko xafla akabera (opako/zeharargia) 30-50mm
10_ xaflak sostengatzeko egitura horizontala 40mm
11_xaflak sostengatzeko egitura bertikala 40mm
12_Climalit beirate bikoitza
13_ metalezko barlasaia
14_forjatu albeolarra 15-20cm
15_txapazko sabai faltsua (kanpoaldea)
16_Igerilekuaren euste horma 30cm
17_igerilekuaren zimendua eta malda
18_kamararen hezetasunerako haizebidea
19_pladurreko sabai faltsua 30mm (barnealdea)
20_ hormigoizko pantalla horma 30cm
21_ Kupolex forjatu sanitarioa40cm
22_ Hormigoizko solera 30cm